NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

LANTZ'EKO INAUTERIK

Ziripot. (AIDA Argazkia).

Iñauteri garaian, geienetan otsaillean, **naiz elurra**, ekaitza edo izotza izan, maiz **Lantz'eko** bidea artu dugu.

Erri txuri ta argi ortan sartzerakoan, **mozorroak** oluka irrintzi ta lasterka ikusterakoan, orrelako gauzik arkitu bear dunik ez du iñork uste ere. Ematen du **oso** urrutiko oituren aurrean gaudela ta **etxe** ondoan izaki, **Euskalerri** bertan.

Negu gorrian iduri du Euskalerriak bere barneko muiñak agertzen dizkigula ta orduan gure artean euskal kutsua ta giroa berez azaltzen da.

Austerre aurreko igande ta asteartean **Lantz'en** jai dute. Eguardi inguruan gazte sailla mozorrotuta ostatutik ateratzen da. Aurretik **perratzailleak** dijoaz; auek zakuz jantziak perratzeko tresnekin daude. Kalean bizpairu tokitan zaldia perratzen dute. Auen atzetik **mozorroak** erdian bat zaldiz aldatua bere buztan ta guztikin daramate. **Zaldiak** lasterka atzera ta aurrera egiten du. Ondotik **Ziripot** datorkie, jantzi lodi ta bigunak ditula, lastoz betea, makil bat eskuan daukala. Gizon galanta au atzera eroritzen zaie ta bizpairun artean aldiro altxatzen dute. Atzetik bizkar gaiñean mutil batek, **Mielotxin** arpegi gaiztozko ponpa galanta darama. Ponpa au aundia ta luzea da; bi makillekin gurutzea egin ondorean, antxe besazabalik **Mielotxin** lapur **gaiztoa** jazten dute. Azkenak txistulariak; **aspaldiko urte auetan Arizkun'go Maurizio Elizalde**, bere doñu alaiekin datorkie

Igande ta astearte eguardian bi aldiz kaleko ibillialdia egiten dute ta frontoian bertako zortzikoa dantzatzen. Zortziko au bertakoak **«aurre»** izenekin ezagutzen dute.

Astearte illunabarrean berriz, beyei bazka ekarri ondorean azkeneko agertaldia egiten dute. Enparantzaren ertzera iristerakoan, mozorro batek bi tiro **Mielotxin** ponpari ematen dizkio ta lurrera botata, larrutu ondorean alaitasunean gorriak esanez erretzen dute.

Ondorean bertako zortzikoa dantzatzen erriko gizonak eta mozorroak nastuta aspertu gabe dabiltza. Azkenean berandu arte ostatuan erromeria.

Egun ortan sekulako bazkari galanta egiten dute gazteak.

Ezin deguna ain errez aztu, mozorroen jantziak, argiak ta margo bizikoak, dira; guretzat neurri berdiñean, oiuak, disko batean artzeko alkekoak, basoko kutsua daukate.



Mielotxin. (AIDA Argazkia).

Ez daude beste iñun **Egoaldeko Euskalerrian**, emen bezelako iñauterik. Bizpairu gai ezberdiñak ikusten ditugu, gaur danak batean agertzen zaizkigunak; **Euskalerriko aintziña** garaiko oitura berexi batzuek, nai ta naiez orduko gizonentzat esan nai aundia zeukatenak eta gureganaiño jai arrotz bat bezela iraun duna. Garai ezberdiñetako oiturak daude danak batean bilduta. Nunbaitetik ariari elduko diogu.

Elurrak beratzen asten diranean, mozorroak agertzen dira, baita arkumeak jaiotzen ta ardiak etxetik ateratzen. Artzaiak basoko indar arrotz guztiak bereganatzeko opari bat eskeintzen zien, orrela bera pakean uztearren. Ain zuzen uste zuten mozorroen oitura jaioko zala.

Mutillak mozorroen antzera aldatuta opari bezela basoko indar izkutuei eskeintzeko puskak biltzen asiko ziran. **Mielotxin** izan leike basoko indar txar guzti oien buru izatea, lendabizi bereganatu nai dutena ta azkenean ondo eutsita daukatenean il ta sua ematen diotena.

Zillegi zaigu gogoan eukitzea, gure mendietan, aintziñako garaietan gizona artzai bezela bizi zala. Lurgintza sartu zanean, nai ta naiez, bien artean ikaragarrizko eztabaidak sortuko ziran. Artzaiak baserritarrari parra egingo zion. Giro ortan artu bear ditugu, **perratzailleak** ta **zaldia** menderatzea. **Ziripot** gizon galanta orrek, danak parra egiten diotena, gaizu orrek zer esan nai ote du? Izen orrekin griego zarrak gizonkiaren sasi jainkoa agertzen zuten. Indar berriak sortzen diran garaiak oraintxe dira bai, baiñan ain aundia arkitzen degula txikiratua dagolako ote? Orrela, berriz, artzaiak baserritarrari parra egiten diola?

Auxe da garbi dakiguna: jai bizi bizirik dagon onen bitartez antziña garaiko gizonaren oiturak ta oroitzapenak ezagutzen ditugula. Orrengatik dira ain sakonak jaii auek eta zer esan nai aundikoak. Ori ikusita guretzat, amets baten bitartez izan ba litz bezela, aspaldiko garai aietako zati batean bizi gerala uste dugu. Orrengatik jakintsuak ain gogoan dauzkate **Lantz'eko iñauterik. Euskalerriak** erri txiki onen bitartez bizirik dauka bere enda zarraren zaiñak, gure mendietako aritz zarren antzera. Auxe da gure aberastasun aundia, ludiko jakintsuk bizirik eukitzea eskatzen digutena.

LATXAGA

AXULAR SARIA

GIZON ETA ASTOA

Bazabillan gizon bat asto batekin barriñoak saltzen. Ibiltzen zan errizerri baserriz-baserri eta zoko guziak barna bere barriñoak saltzen.

Alako batean oso nekatu zaion astoa. Gizonak tiratzen zuen sokati, bañan ez zion segitzen. Bulkatzen zuen bañan gauza bera; jotzen zuen bañan alperrik, astoa ez zen mugitzen.

Gizona pensatzen zagon; Nik zer egin behar ote dut asto onekin.

Alako batean sartu zen onduan zuen baratze batean eta ikusi zituen piper pilla batzuk!

Ura ikusi zuenian gogotu zaion sartu behar ziola piper bat astoari ipurditik ia zer pasatzen zaion. Eta eman zion astuak lasterrari eta segidun galdu zitzaion astua bistatik.

Orduan bildurtu zen gizona eta pensatu zuen sartu behar zituela berak bi piper ia arrautzen zuen astoa. Eta eman zion berak lasterrari. Astoa ikusi zuenian oso kontent jarri zen arrautuko zuelakoan, bañan konturatu zuen astoan ondoan ezin zala gelditu, pasatu eta aurrera segitzen zuela eta ezin zala gelditu.

Emendik aurrerakoan laster aundia nai dezuenian egin badakizue zer egin behar dezuen!

Miren Lourdes Maritxalar
13 urte. LESAKA

IKASTOLAN

Egun batez bazen anderoño bat eta izena zuen **Mari Karmen** eta bazituen 24 ikasle, ziren 3.º Elena, Erramun, Joxe Jabier, Mertxe, Alfredo, eta Migel Mari. 2.º Eduardo, Fermin, Maria Elena, Graxi, Maria Ines eta Jaima. 1.º Juan Mari, Felipe, Isabelita, Fernando, Maria Jose, Xalbador, Migel, Amaia, Ana, Iziar, Jose Luis eta Enkarna. Egun batez Jaimek erran zion Anderenoi.

Ez **dut arkatza, Andereño.**

Eta erran zion.

=Ekarri behar duzu hiru arkatz.

Eta pastu zen egun bat eta ez zuen ekartzen, eta pastu zen bertze eguna eta ez zuen ekartzen eta Andereñok erran zuen.

=Zoaz hemendik zure etxera, ekarri hiru arkatz.

Baño ez zen gan eta bertze egunean atsaldean ekarri zitu hiru eta andereñoi eman zion bi altxatzeke zergatik hausten zuen.

Migel Marik beti ekartzen du txiklek eta andereñok kentzen dio. Gero ekarri zuen txikle gehiago eta kendu zion, gero ekarri zuen berriz txiklek eta andereñok erran zion.

=Iaten baldin baduzu kenduko dut.

Eta Migel Marik ekarri zuen hiruak eta andereñok eman zuen Miserikordiako Pobrendako.

Elizondoko Ikastolakoa ALFREDO ASTIZ. 8 urte

ROSARIO TRASTEA

Egun batean bazen neska bat eta zun izena Rosario eta pasa zan denbora eta Rosarion amatxok orraztu zun trenzak eta Rosario nai zun jun bere lagunan etxera eta bere amatxok ez zun utzitzen eta bereamatxok egin zuen siesta eta kasualidadez trenza bat askatu zan eta esan zion bere buruari.

—Ze egingo det? A! badakit zer egin. Hartuko det axturrak eta moztuko det illia.

Eta hola in zun eta jun zan bere lagunan etxera.

—Hola nola zaude?

—Oso ongi, Zenek moztu dazu illia? Amatxok edo pelukerak.

—Bai, pelukerak.

Eta pasa zan denbora eta bere amatxo esnatu zan eta deitu zuten eta amatxo joan zen Rosarion etxera eta jo zun atea...

—Non dago Rosario nere alaba?

—Hemen dago.

—Esan etortzeko.

—Bai esango det.

—Aiba! nun dezu trenzak?

—Lurrean, han beste puntan.

Eta bere amatxok hartu zun Rosariori eta eman zun bi ipurdiko eta biali zun hartzera trenzak eta kolatu zun koletak.

Elizondo-ko Ikastolakoa
ELENA IRIBARREN. 8 urte

EUSKALERRIAN BARNA

Euskal Herriko «Antzerki Leiaketa» Tolosan

Tolosako "Centro de Iniciativas y Turismo" delakoak "Lehenbiziko Antzerki (Teatro) Leiaketa" antolatu du. Leiaketa hau bi hizkuntzaz, euskeraz hala erderaz, izanen da.

Lehiaketan hontan **Gipuzkoa, Nafarroa, Araba eta Bizkaiako Antzerki Talde "amateur" guziek** para hartu ahal izango dute. Talde bakoitzak aurkezpen bakarra Tolosako "Iparaguirre" Teatroan emango du. Bere tenorean zein egunetan emango diran jakineraziko dute.

Beste xehetasun eta berriak Tolosako C.I.T. delakoak, berari zuzenduz, emango ditu. (San Juan Kalea, **Tolosa).**

Sariak: Lehenbiziko gertatzen denak 25.000 pezetako Saria berenganatuko du. Hontaz gainera Sariketa hontan parte artzen duten guziek laguntza moduko 5.000 pezeta jasoko dituzte.

Izenak bidaltzeko epea bukatu bada ere, hil hontako amabostgarrenean bukatzen bait zan, eta **DIARIO DE NAVARRA** honen beste toki batean orain hilabete bat edo Leiaketan honen berri eta xehetasunak agertu arren, uste izan dut hemen ere haren berriak agertzea homeniko litzakela.

* * *

LUR Editorialaren berriak

Iragan "Euskal Orrian" ETOR delako (orain GERO izenari bihurtua) aren berriak eman nituen. Orain bere txanda LUR izeneko euskeraz argitaratzen dituen Etxeari tokatu zaio. Honako berriak jaso ditut, 1973 garreneko lanak. Urte hontan berean argitara emanen dituen liburuen izenak hauek dira:

"DECCAMERON TIPIA"—Liburu honen zenbait zatien itzulipena. Gabriek Arestik eratua.

"EUSKAL BERDINTASUNA"—Bi tomoak dira. Euskal Herriko kondairari buruzkoa da. Egilea: Alfontso Otazu.

"MARJINAZIOARI BURUZ"—Egilea: Ramon Saizarbitoria. Lan soziologico bat da.

"BESTEA" — Nobela bat da. Egilea Xabier Kintana.

"GERRA ONDOKO EUSKAL POESIAREN ANTOLOJIA" — Egilea: Ibon Sarasola.

"KULTUR KRITIKA" — Egilea—E. Osa.

"EUSKAL MITOLOJIA"—Egilea: L. Haranburu-Altuna.

"EUSKAL LITERATURA 73".

"KULTURA HERRIKOI" ri buruzko lana. Egilea: J. Lakuntza (Euskal FOLKLOREARI dagokion liburua da), eta.

"EUSKAL JEOGRAFIA"—Lizundiak egindakoa.

Hauetaz gainera eta lehen esan nuen bezala LUR delakoak Arestiren.

EUSKAL HIZTEGIA izenekoa argitaratuko du, bi tomotan partitua.

Aurten eta norberak ongi konprenituko duenez, liburu bakoitzaren prezioak emendatuko dira. Liburu bakoitzak 100 pezetatan bidalduko dira harpidedunentzat, liburutegietan berriz 200 pezetatan salduko dira. Gauza nabarmena da LUR honen harpidedun izatea komenigarri izaten dela.

Edozein egin daiteke zuzenbide hauetara zuzenduz: LUR Editorial-Paseo Arbola-SAN SEBASTIAN.

* * *

Baztango dantzariak

Egia esan eta baztandarrak izaten badira ere obeago esariak". Gure arizkundarrak tea da "Arizkungo dantzabere herri eta Baztango izenak goian jaztzen ari dira azken amabi hilabete hauetan.

Lehen Donostian, Azpeitin eta Galdakanon gutienez beren mutildantzekin egon baziran, aurten ere laister bere herritik kanpo joan behar izanen dira "Zeruko Argia" astekarian Izeta adixkide jatorrak dionez datorren Martxoaren 22 garrenean Donostiako Herri-Etxeko areto haundian gure arizkundarrak bere ahalmen, trebetasun eta euskalduntasuna erakusteko une eta era Baztango mutildantzak dantzatzen izanen dituzte. Egun hartan eta toki berberean Iruñeko Patxi Arrarras jaunak Baztango Folkloreari buruzko hitzaldi bat emango du. Arizkundarrek Hizketaldi honen bitartekoetan beren dantza ikusgarriak erakutsi eraziko dituzte.

Aipatzekoa da ere bai iragan Otsailaren 21 garrenean Leitzeko herrian ospatu zan euskal festa. Hara baztandarrak joan ziran dantzatzera baita ere euskal kantariak: Iñaki, Goya eta Balentzia bertako Frontoia euskaldun jendez bete beta zegoelarik.

Beti bezela **Maurizio Elizalde** txistulari bikainak eta **Felix Iriarte** danboliñ jotzaile trebeak bere txistu eta danboliñan soinuekin dantzariak laguntzen dituzte.

Nere agurrik beroenak Arizkungo Talde Dantzari jatorrari bidaltzen dizkiot. Ekin eta yarrai gure euskera eta euskal jatortasunaren alde.

IKUSLE

PAKEA

Urtearen lenbiziko egunean ludi guztian ludiko pakearen eguna ospatzen da. Paulo VI garrenak orregatik egun batzuk lenago itzaldi batean pakearen gañen gauz asko esan dizkigu.

Pakea ba leiteke. Ainbeste urtetan alderdi batean ez ba da bestean guga ikusita uste dezakegu pakea ezin dezaken gauza dala, eta ezta ala. Pakea ba leitekela esatea gauz aundia da gizonarentzat eta alegiñak egin bear ditu gizonak bizitarako bearrezkoak baña zallak diran ondasunak irixteko. Pakea ba leiteke gizonaren izantasunak eskatzen dualako eta orduan ezin dezakegu esan pakearen gogo ori Jaungoikoagandik datorrela baizik (besterik). Jaugoikoak gure biotzean gogo ori jarri duala eta gure laguntasun eta indarrarekin billatu eta iritxi bear degula esan dezakegu.

Pakea zor bat da. Pakea gizon bakoitzak gizon danei zor dien gauz bat bezela da. Pakea bezela ainbeste naiadan ondasun bat ez dezakegu eskatu berez gugana etorrii dedin lana eta alegiñaren bidez baizik. Pakea ezta agintarien lana bakarrik, agintariena eta gu bakoitzarena. Danon lana da ainbeste nai eta maite degun eta ikusten ez degun pake au.

Pakea indarretik eztator. Indarraren bidez ezta pakerik etorriko. Indartsuak uste dezake gauzak ongi daudela, dana ongo dagola. Baña pentsatzen al du zer izango litzaken menpean dagona orduantxe bera bezin indartsu edo indartsuago egingo ba litzeke? Indartsuak in darraren bidez pakeatzen ba ditu baztarrak errore edo ustekaitzean dago. Mendean dagona ixildu erazi du besterik ez, eta ori ezta pakea.

Paulo VI garrenak oraindik geoago esa digu: **Maitasunaren, egiaren eta justiziaren frutua da pakea.**

Pakearen utsuna injustizia, gezurra eta anaitasunaren galtzeratik dator.

Justizia. Bearrezkoa da justizia bat gaurko gizonari begiratzen diona, ez atzokoari. Justizia onek begiratu bear du zer pentsatzen duan gaur gizonak berengan, bere berdintasuna beste gizonen ondoan, bere askatasuna, justizia berri bat gorroto denak kendu eta gizon denak pakeatu al dezakena.

Egia. Ezin diteke pakearen oiñarria gezurra izan. Eztare bildurraren sortu erazi eta esan: **Pakea, pakea! pakerik etzegonean». (Jer. 6.14).** Egiazko pakea nai ba degu, egia beti esan bear degu danon aurrean. Gezurrarekin ba gabiltz pakearen irudi txar bat besterik ezta izango eta noiznaiz agertuko dira gezurraren eginkizunak.

Maitasuna. Sinismenzaleak ba gera guretzat **«Kristo da gure pakea». (Mik. 5,5).** Belenen ala esan ziguten aingeruak. Kristoren atzetik ba goazte, lagun urkoaren maitasunaren agindu berriko bidean ibilli bearko gera.

Ba dakigu erabateko pakea eztala mundu ontan irixten, baña gure eskuetan dago Gogo Deunak lagunduta alegiñak egitea Jaungoikoak nai duanaño urbiltzeko.

Felipe ARAÑA

Ion MIRANDE olerkari zenaren idaz - lanak

Abenduaren 28-an Parisen hil zen euskal idazle aundi bat, Ion MIRANDE Aiphasorho, euskalzain aski ezaguna gure artean, nahiz azken denboraldi huntan ixilik egon. Oso gazte hil da gure adiskidea, 47 urteetan: bihotz oneko sen apala, adimendu eta oroimen aundikoa beti prest. Kultura edatuaren jabe, 8 izkuntza guttiene zbasekizkian, euskaraz gainetik (eta huntan berdin nafar-lapurtarra edo bere familiako ziberotarra); inglesa, gaztelania, franztesa, galesa, irlandera, bretoina, alemana, eta besteak oraino.

Ziberotar gurasoen semea, Parisien sortua eta bizitua; halaz ere euskaldun osoa. Aldizkari askotan idatzi izan du: EGAN, EUSKO GOGOA, ELGAR, GUERNIKA eta berak Peillen adiskidearekin ateratako IGELA aldizkari laburrean (7-8 numerotako aldizkari gordina eta ausarta; halaz ere Etchahunen eta Ligueix-en kantoreak ekarritakoa, dokument, gisa interesik falta ezduena), eta oraindik bestetan. Nobela bat ere idatzi zuen, AUR BESOETAKOA izena duena, gaia aski bihurria erabiltzen duena.

Osasunez minbera, zainxuri-etatik bereziki, barrenkoia eta beltz aldera ixuria, ideiaz ere aparta zen Mirande gizajoa. Bere ideia berezi horiengatik etzen euskalzain bezala onartula izan, lau lagunek, euskalari gisako bere merezimendueri txoilik oharturik, aurkeztu ginuelarik Euskalzaindiko Batzarre batean, duela urte parrasta bat. (A. Lhande ziberotarraren aulkia betetzeko, uste dut). Uste dugu bere adiskide Peillenek, haren oroitzapenetan, bere lan ederren sorta bat eskeiniko digula. Merezi du euskalari aundi eta gure adiskide oroituak.

Oroen artean, EGAN eta EUZKO GOGOA-n argitaratu lan ballos batzu aipatuko ditugu astiroago. EGAN-1955, (1-2) numeroan, UNDINA eta PARANOIA olerkiak. 1956-1, numeroan IPUIN KHONDATZAILE-A deitu ipuin polita Monro inglesetik itzulikaturik. EGAN bereko 1959-1-4 numeroan, **Izkuntza baten eriotza eta berpizkundeaz,** izenburua duena argitaratu zuen.

Cornwall edo Córnico eskualdearen Historia eta Reportaje luze aipagarri bat delako, ardura aundiko lana eta gue artean guttuk irakurria, hemen zehekiago azalduko dugu. **Cornwall** edo **Kornubia** Inglaterrako ego-mendebaldean dagoen peninsula bat da, (dio artikuloan); bere izkuntza zeltikoa, XVIII garren mende-azkenalderako arront galdua zegoen. Izkuntza jatorrian, **—Kernow—** deitzen zuten eskualde hori, eta **—Kernewek— mintzaira bera, guk** gurea —euskara— deitzen du gun bezala.

Arthur errege famatuaren denboran, erdi-mende astapenean, bera eta MAI BIRIBILLEKO ZALDUNAK (euskara garbiagoaz, **Maai inguruko zaldunak,** obeki legoke) kornubieraz mintzo ziren; ondotik anglo-saxonak eta danes-tarrak sarti era lurraz jabetu ziren. Kornubia-tarrak, gales-tarren ahaide urbilak dira (eta bretoinekin oraino gelago) beste zeltikoenak be zalatsu. —X— garren mendetik aurrera ezdira bere lurren eskuko izan. **Tristan eta Isolda** maitale famatuen kondaira hemengoa da; eta Dramak eta misterioak **—myra-Kil—** ere badaude kornubieraz **—Origo mundi Passio Domini—,** gure Pastural bat zuen gisara taxutuak.

Reforma-ren aurka altxatu ziren XVI mendean eta garaituak eta zigortuak ere ondotik. XVIII gn. menderaino zuen kornubia izkuntzak iraun eta laster galdu, metodistek (galestarrek, ez bezala) in glesez txoilik predikatzen zutelako Elizetan; —1777— urtean hil zen Dolly PENTRAETH, kornubieraz mintzazen Alren atso. bakarra; Bonaparte. Nauyzeak hilarri bat zion. Puzande ordioko auzo batean eraiki, andere horri. Diotenez, eskean bizi omen zen eta erremusina-rik eman nai ez ziotenaeri egundoko burro eta madarizinoak botatzen omen zieten, haiek ulertzen ez zuten izkuntza zaharrean, izpiritu minberak ikaran utzirik.

Hainbeste traba eta kontrakarra izan ondotik, XIX gn. mendearen erditsura, Pizkundeko bat ezagutu du azkenik izkuntza dohakabeak. Ordutik hunara, Iztegiak, komediak eta kanta zaharrak argitaratzen asiak dira; lehenean arkeologia gisan, eta ondokoak mintzaira bizia pizteko xedetan. JENNER izan da lehenetako mintzazale bat; oraintzu, MORTON - NANCE eragile aundiena da, komediak eta iztegiak idazten —An **balorez—** (belatxikia) bezalakoa eta Ikasbide errez bat **—Cornish for all—** (kornikizketa oroendako); **Caradar** deitu batek, berdin metodo aise bat **—Cornish simplified—** atera du.

Pizkunde huntan, Mirandek Bardoen batzarrak aipatzen ditu, GORSETH BYRD KERNOW elkartea bereziki, olerkari ereduak biltzen dituena; gales eta bretoinekin ere, hauen Biltzarretan sarzen dena. Bardo horien artean, kornubi-era ikasi dutenetan, gales-tar, bretoi, irlandarrik ere ikusten dira, bai eta ingles eta euskaldunak ere. Hauen artean, duela zenbait urte, gure adiskide Mirande bera onartua izan zen, eta izendapen preziatua erdiesteko, irakurgai bat egin beharra da. Hortarako **—Goizean goizik** jaiki nunduzun— zibero-kanta famatua kornubiera-ra itzulikatu zuen.

Oraingotz, eunka batzu soilik mintzazen aal dira izkuntza huntaz, eta Kornubia-ko jendeak inglesekin adiskide egon nai badu beti, herrizaleen lanak eta jaiak begi onez ikusten ditu. Radiotik eta Elizetan ere asi dira itzaldiak entzuten, eta 1934 urtetik hunara, kornubieraz ilabetekara bat agertzen dure **—An lef—** (Mintzoa) izena duena. Azalpen hau luzexko joan bada, gaia guretako ernagarri da eta arras gutti ezaguna. Finitzeko, kezka bat; gales-aren ahaide urbila izaki eta, izkuntza bizi hau, asieratik zergatik ezduten autatu kornubiatarrek, eztakigu.

Egan aldizkariaren 1960 (3-6) numeroan, iru artikulo argitaratu zituen gure adiskideak; 8 orrialdetako saio polit bat, Ipuin bat eta bibliografia bat. Lehenean, **Eresi kantari,** izena duena, **Goizean goizik** Ziberuko elexaharrari buruz, Mirandek asmamen aundiko saio barnakoi bat apailatzen du. Itzemanak dauden neskatxa bat eta gazte beren arteko dudamudak itxuratzen ditu, kanta horrek bidea emanez (neskatxa kantaria da).

Gazteak ezkondu nai du baina neskatxa (Helena) eztago bero. Hunek bertsuak adiarazten dizkio, baina gazteak beste barrena ikusten diete; Gabriela Lohiteguy faltsukeriaz ari izan dela dio eta Irigaray senarraren lore poziondua, humen amoranteak igorria ez, bainan Gabrielak. Gero gorputz hila kanberan zazpi urtez **etxeki** ordez, Gabrielak bere amorantea omen du jauregira ekartzen. Prosa eder batez, ipuin korapilatsu bat.

Numero berean **—Ipuibeltzak—** izeneko 7 zirto-ateraldi kirats eta gogor, euskara erri koi batean. Irugarrena, Egan berean, **Goncourt** aria dela eta, Schwartz-Bart juduaren aitzi ekiten du; **Le dernier des justes** haren nobela, sarlstatua izan dela adiaraziz, iuduzalez josirik daudelako Franzlako letradunen bilkurak.

Euzko-Gogoa aldizkarian, artikulo parrasta bat argitaratu zuen; 1956 urteko libeltza numeroan **—Bi fraideak— An da bhrathair—** irlandesatik xarmanki itzulik aturik, itzulpena dela nabaitu ere gabe.

Epailla numeroan bestea, **—Maitharien arnoa—** izeneko prosa ipuin barnakor eta gogor bat, izkuntza errez eta argi batean. **Larrazken gau** batez, izeneko Olerkia **Magdalenae dilectissimae** ikur edo ezaugarriarekin.

Aldizkari bereko 1957-11 beltza numeroan Zaldiz Zeruan, izeneko Olerkia, Stone-Jones inglesekotik itzulikatu unai-elezar bat. Eusko-gogoa numero berean, Burua izena duen V zatitako occitan-etik euskeratu ipuin polita.

Besteek Mirande-n bizitza-alderdiak ukitu dituzten bezala, guk haren euskal obra gogoangarriaren berri batzu azaldu nai izan ditugu, idazle on bat izan denaren oroitzapenetan.

A. APAT-ETXEBARNE